

Gidoi originala eta gidoi egokitua

Munduan egiten diren filmen erdia baino gehiago aurretiko testuetatik datoz: eleberriak, antzezlanak, kantuak, *komikiak*, albisteak... Narraziozkoak ez diren film-moduetan ere ohikoa da poemak edo musika-konposizioak irudikatzea. Ikus-entzunezko eskola guztietan ariketa ohikoenetako bat da testu horiek egokitzea film parekidea eskuratzeko. Are gehiago, Estatu Batuetakoa bezala oso garatuak dauden industrietan badira profesionalak ustez potentziala duten eleberriak bilatzen dituztenak, gerora zinemako arrakastak bilaka daitezten. Azken urteetan, fenomeno hori muturrera eraman da, eta oraindik idatzi gabe dauden eleberriak erosten dira, autore batek arrakasta izango duela aurreikusita.

Ez dago desberdintasun funtsezkorik lan original bat idazteko metodoan edo aurretiko lanen egokitzapen-prozesuetan. Egokitzea da bitarteko batetik besterako xehetasunak eraldatzea, hau da, bi lengoia egokitzea aldaketa edo doiketa bidez. Kasu ohikoenaz hitz egingo dugu, alegia, eleberri batetik film batera pasatzeaz. Bi bitartekoen arteko "igarotze errituak" edo "irudian letraren trazua" bilatzea litzateke urteetan zehar eztabaida intelektualen eta ika-mika luzeen gai esanguratsua. Egokitzapen orotan, noski, baloratu behar dira, kasu bakoitzean, bi bitartekoen partekatzen dituzten guneak (ikuspuntua, estilo narratiboak...) eta baita gatazka-guneak ere (zinema eta literatura biak ala biak prozesu desberdinak erabiltzen dituzten errealitatea irudikatze moduak dira). Azken batean, "irakurgaitik ikusgai" izateko eraldaketa, Manuel MurOti zinegile espainiarraren definizioaren arabera, ez da prozesu automatiko bat, trebetasun tekniko batzuk eskatzen ditu. Horien artean azpimarragarri dugu jakitea zenbateraino mugatzen duen iraupenak filma, izan ere, hedapen narratiboa eleberrietakoa baino askoz motzagoa izaten da.

Ondorio nagusia da zinemak literatur testu originalaren aukeraketa zorrotza egin behar duela. Gidoilariak kondentsazio-lan bat egiteaz gainera -ez baita laburtzea soilik-, askotan pertsonaiak, tramak, azpi-tramak kendu behar izaten ditu, haien garrantzia murriztu eta, zenbait kasutan, baita pertsonai eta egoera berriak sortu ere. Horrek guztiak, ezinbestean, eragina izango du erritmo narratiboan eta ikuslea psikologikoki erakartzeko mekanismoetan.

André Bazin kritikari eta teoriko frantziar ospetsuak hiru egokitzapen mota bereizten ditu:

1. Errespetu handiarekin egokitutako lanaren funtsa hartzen dutenak, adibidez, Manuel Gutiérrez Aragónen *Don Quijote* (1991) lanaren egokitzapena.
2. Egokitzapen askeak oinarrian dutenak obrarekiko sinpatia edo egile-eskubideak erosita edukitzea, Pedro Almodóvarren *Carne tremula* (1997) filmean gertatzen den bezala.
3. Zinema eta literatura artean dialektika original bat ezartzen dutenak, Marguerite Duras-en filmek bezala.

Jakina denez, zinema eta literatura bi produktu desberdin dira, eta baldintzatuta daude beren kontsumo-ereduengatik eta publikoari eskaintzen dioten gozamenagatik. Zinemaren historiak mota guztietako adibideak ditu: bai eleberri erdipurdikoetatik ateratako filma zoragarriak eta baita

eleberri arrakastatsuetatik ateratako film eskasak ere. Ez dugu ahaztu behar, marketin-lanak kontuan hartu gabe, bitarteko batean arrakasta izan duen lanak ez duela ezinbestean emaitza bera jaso behar bestean: horren adibide ditugu *La costa de los mosquitos* edo *La hoguera de las vanidades* eleberrien egokitzapenak.

Horregatik, aholkurik onena da gidoilariak egokien iruditzean zaion moduan lan egin dezala uztea film on bat egiteko. Dena den, egia da oztopoak aurki ditzakeela eskubideak erosterakoan kontratu-klausuletan, Espainian Arturo Pérez Reverte egiten duen bezala.

Funtsean, egokitutako gidoi batek originalaren arau berberak jarraitzen ditu. Sormen-ikuspegi batetik, egokitzapena, finean, erabakiak hartzea da. Aurretiko testuaren garrantzitsuena gaia da; behar bada gutxien aldatzen dena gidoi bilakatzeko garaian, hor baitago kontatu nahi denaren mamia. Zentzu horretan ezinbestekoa da testuaren azpian dauden kategoriatara xehetasunak eramatea eta "irudi batek mila hitz baino gehiago balio du" dioen aforismoari jarraitzea, sekuentzia bakarrak liburu baten orrialde asko bildu baititzake.